

Enpresa bat sortu nahi dugu, arropa ekologikoa, organikoa eta birziklatua erabiliz. Ekoizleak izango gara eta lortutako diruarekin etxegabekoei etxea emango diegu. Arropa gizonentzat eta emakumeentzat izango da, taila basikoak erabiliko ditugu, hau da: S,M,L eta XL.

Gure helburua ingurumena zaintzea da eta horretarako kutsatzen ez dituzten produktuekin egingo dugu lan. Etxegabekoei ere aukera bat eman nahi diegu gure enpresan langile moduan jarriz eta lortutako diruaren zati bat enpresarentzat izango da eta beste bat langileak biziko diren etxearen gastuak ordaintzeko eta beraien beharrak asetzeko.

Gure lehiakideak, gu bezalaxe arropa saltzen duten enpresak izango dira, bereziki produktu hau, lehengai organikoekin ekoizten dutenak; adibidez: Ecoology, People Tree, Spinnaker eta horrelakoak. Lehiakide hauengandik bereizten gaituen ezaugarria honakoak dira, prezioak oso eskuragarriak direla eta jendeari laguntzen diogula. Dirua lortzeaz gain, gure helburu nagusia jendeari laguntzea dela, beste enpresa batzuek ez bezala. Gainera, ez daude horrelako denda asko inguruan, beraz, aukera ona da gure enpresan inbertitzeko.

Gure arropa berdina egiten dituzten online dendak eta beraiek dituzten prezioak:

€	Ecoology	People tree	Ecoalf
Kamiseta	38-55	55-130	40-55
Galtza	28-55	29-149	79-99
Jertsea	29-55	125-179	169-350
Barruko arropa	17-29	10-29	ez dago